

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Abadiñoko Udala

Ayuntamiento de Abadiño

2011





AURKIBIDEA / ÍNDICE

0. LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia	9
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI	
BURUZKO IRIZPENAK	11
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	11
III.2 Zerga sarrerak	12
III.3 Langileria.....	13
III.4 Diru-laguntzak.....	13
III.5 Kontratazioa.....	14
III.6 Berankortasuna eta bestelako alderdiak.....	15
IV. FINANTZA ANALISIA.....	17
V. URTEKO KONTUAK.....	21
ALEGAZIOAK	24
0. ABREVIATURAS	29
I. INTRODUCCIÓN.....	31
II. OPINIÓN.....	32
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	32
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales	33
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO	
Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	35



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.1 Presupuesto y contabilidad	35
III.2 Ingresos fiscales	35
III.3 Personal	36
III.4 Subvenciones	37
III.5 Contratación	38
III.6 Morosidad y Otros aspectos	40
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	41
V. CUENTAS ANUALES	45
ANEXOS	49
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación que le resulta de aplicación	49
A.2 Presupuesto y sus modificaciones	50
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	53
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	54
A.5 Enajenación de inversiones reales	54
A.6 Gastos de personal	55
A.7 Compras de bienes corrientes y servicio	57
A.8 Transferencias y subvenciones corrientes concedidas	58
A.9 Inmovilizado	59
A.10 Pasivos financieros	59
A.11 Deudores presupuestarios	60
A.12 Acreedores presupuestarios	61
A.13 Tesorería	62
A.14 Operaciones extrapresupuestarias	63
A.15 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial	64
A.16 Análisis de contratación	64
ALEGACIONES	67

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 24a
Vitoria-Gasteiz, 24 de octubre de 2013



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

0. LABURDURAK

10/1989 FA	10/1989 Foru Araua, ekainaren 30ekoa, Eraikuntza, Instalakuntza eta Obrei buruzkoa.
10/2003 FA	10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa.
8/2010 LED	8/2010 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 20koa, defizit publikoa murrizteko aparteko neurriak hartzen dituenak.
APKLEO	Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra.
APKLTB	2/2000 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 16koa, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bategina.
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
DLO	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.
EFPL	6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
EIOZ	Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren gaineko Zerga
HILBIZ	Hiri izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga
INEM	Enplegu Institutu Nazionala, egungo Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
OHZ	Ondasun higiezinaren gaineko zerga
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
TAOAL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak.
TKZE	1955eko ekainaren 17ko Dekretua, Toki-Korporazioen Zerbitzu-Erregelamenduari buruzkoa.
UDALHITZ	Tokiko euskal erakundeen lanerako baldintzak arautzen dituen akordioa.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Abadiñoko Udalaren 2011ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua eta memoria; baita udalaren aurrekontuen likidazioa ere.
- Bestelako alderdiak: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, Udalaren kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Abadiñoko udalerriak 7.312 biztanle ditu 2011ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren arabera eta Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko kide da. Gainera, 2011ko abenduaren 31n % 6,67ko partaidetzarekin Erralde Durangoko Hiltegia, SLko kide da eta 2012ko ekitaldian egindako kapital zabalkuntzaren ondoren, partaidetza ehunekoak % 22 izatera aldatu da.

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILERIA

1. Udalak 2011ko abenduaren 31n ez du gaurkotutako LZrik (azkena 2002ko azaroaren 28an onartu zuten) eta horrek EFPLren 13. artikulua eta ondokoak urratzen ditu; LZk langileria beharrak zehazten ditu, lanpostu bakoitza sailkatzen du eta horiek betetzeko eskatzen diren betekizunak finkatzen ditu. Horren ondorioz, 2011ko abenduaren 31n 10 pertsonaren lanpostuek ez daude legez babestuak, izan ere 2002ko LZn barne hartu gabe daude. Aurrez aipatu horietatik bi, bitarteko funtzionario izendapena dutenak, udaltzaingoko plaza huts bera ari dira betetzen; plaza hori, gainera, jabetzan beste pertsona batek bete beharko zukeen, izan ere, 2006ko abenduan praktiketako funtzionario izendatu ondoren eta 2008ko irailean praktika aldia gainditu ondoren, praktiketako funtzionario modura segitzen du, EFPLren 91 eta 28 artikulua urratuz.
2. Udalak 2011n zehar bi lanpostu aldi baterako betetzeko hautaketa prozesuetan ez dira funtzio publikorako sarbidean buru egiten duten berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatu, EFPLren 33.1 artikulua urratuz.
3. 2011ko ekitaldian zehar Udaleko langileek jasotako aparteko ordainsariak ez zaizkio Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 39/2010 Legeak 2011ko urterako ezarritakoari egokitzen, oinarrizko ordainsarien % 100 barne hartzen baitute. Bestetik, oinarrizko soldata eta destino osagarri modura ordaindutako kopuruak 2011n ezargarria zen aurrekontuko araudiari egokitzen zaizkio, berariazko osagarriari 2010ean berariaz sortutako produktibitate osagarri baten zati handi bat txertatuz; txertaketa hori, baina, Udaltzak onartu behar zukeen, TAOALen 22.2 i) artikulua agintzen duen moduan. Produktibitate osagarri hori oinarrizko ordainsariei ezarri zitzaizkien murrizketen zenbateko berean zenbatetsi zen eta horrek EFPLren 79. artikulua eta 8/2010 LED urratzen ditu.

KONTRATAZIOA (IKUS A.16)

4. Traña-Matiena Lanbide Heziketako Ikastetxearen (LHI) aldagelak eta kirol anitzeko pista eraikitzea xede duen espedientea 2011ko martxoaren 1ean esleitu zen 519.641 euroren zenbatekoan (4 zk. espedientea); hilabete berean kontratuaren xedearekin zerikusirik ez zuten aldaketak onartu ziren, 223.679 euroren zenbatekoan, esleitutako kopurua % 43 garestitzen dutenak; horrek oinarrizko edukia eragiten du, jatorrizko proiektuak gabeziak zituela erakutsi eta kontratazio arautegiaren lehia printzipioak urratzen ditu, kontratuaren xedea ez ezik, bolumen ekonomikoa ere desitxuratu egiten baitu. Horrez gain, pleguek APKLEOren 36. artikulua urratzen dute, sailkapen kategorია handiagoa eskatzen dutelako.
5. Udalak guztira 199.832 euroren gastuak egin ditu; kopuruak eta/edo zerbitzuen iraupena aintzat hartuta, kontratazioetan publikotasuna eta gardentasuna bermatuko duten prozedura bidez izapidetu behar ziratekeen.



Epaitegi honen iritzira, Abadiñoako Udalak, 1etik 5era bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2011ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Udalaren 2011ko ekitaldiko aurrekontu likidazioaren sarreraren 4. kapituluak itunpeko zergetan parte-hartzeagatik kitatutako eskubideak (Udalkutxa) barne hartzen ditu; eskubide horiek 4,4 milioi eurorenak dira eta urteko azken kitapenaren kontura egindako entregai dagozkie. Likidazio hori 4,1 milioi eurorena izan da eta honenbestez, Udalak 2012ko martxoaren 20an BFAk erabakitakoari jarraiki, 271.228 euro itzuli beharko ditu 33 hilekotan 2012, 2013 eta 2014an zehar. 2011ko ekitaldian zehar 2009 eta 2010eko Udalkutxaren likidazioen kopuru garbi kontzeptuan BFAri itzuli beharreko kopuruak gastuen aurrekontuko 9. kapituluan erregistratu dira, 268.457 euroren zenbatekoarekin. 2011ko abenduaren 31n kontzeptu honengatik ordaintzeko dagoena 511.256 euro da eta horri 2011ko ekitaldiaren likidazioko 271.228 euro gehitu behar zaizkio, ez aurrekontuan, ez ondarean, erregistratu gabe daudenak.

1. Bizkaiko Nahitaez Desjabetzeko Lurralde Epaimahaiaren ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu du Udalak, desadostasunak izan dituelako jabeari ordaindu beharreko prezio justuan, kultura eta irakaskuntzako ekipamendu sistema modura kalifikatu den lursail bat nahitaez desjabetu izanaren ondorioz, egungo eskolak handiagotzera emana, 1999an zegoen planeamenduaren arabera. Udalak lursailari 533.734 euroren balioa eman dio eta lursailaren jabeak, berriz, 3,4 milioi eurorena; aipatutako Bizkaiko Nahitaez Desjabetzeko Lurralde Epaimahaiak, 2009ko apirilaren 22ko ebazpenaren ondoren, 1,9 milioi euroan ezarri du prezio justua, gehi dagozkion interesak. udalak 2011ko abenduaren 31n ordaintzeko kopuru modura 592.092 euroren zenbatekoa kontuataratu du. Gaur egun epaia jaso zain dago eta honenbestez, ezin jakin daiteke Udalak egiaz ze kopururi egin beharko dion aurre.
2. Hona hemen 2011ko abenduaren 31n Abadiñoako Udalaren gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikinean, data horretan itxitako Egoera Balantzean eta Funts Propioetan eragina duten doiketak:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	AURREKONTUKOA	ONDAREKOA		
	DIRUZAINZA GELDIKINA	AKTIBOA	PASIBOA	FUNTS PROPIOAK
2011.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak				
A.3 HILBIZen tasa eta likidazioak, 2012an kontuetaratuak	51	51	-	51
A.4 Ejk emandako eta erregistratu gabeko sarrerak	540	540	-	540
A.5 Irabazteko aprobetxamenduaren monetarizazioa	326	326	-	326
A.11 Aitortutako eskubideen erregistratu gabeko bajak.....	(71)	(71)	-	(71)
A.13 Kontu murriztuko sarrerak, aplikatzeke	-	157	157	-
Sortu gabeko eta 11.12.31n erregistrat. eskubideak				
A.3 OHZren likid. negatiboa eta 2011ko kobratzekoa, erreg. gabe	(106)	21	127	(106)
2011.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko obligazioak				
A.8 Emandako diru-laguntzak, 2012an erregistratuak	(25)	-	25	(25)
A.10 Maileguen interesak	(26)	-	26	(26)
A.7 Gastu arruntak eta inbertsio errealeak, 2012an onartutakoak	(153)	22	153	(131)
Beste batzuk				
A.9 2011.12.31ko Inbentarioaren balioa Balantzean txertatzea	-	(5.490)	-	(5.490)
A.10 Kreditu erakundeen eta Udalkutxaren zorrak egokitzea	-	-	1.747	(1.747)
A.14 Aurrek. aurreko urteetako Udalkutxaren likid. negat. txertatzea ...	(216)	(216)	-	(216)
GUZTIRA	320	(4.660)	2.235	(6.895)

Epaitegi honen iritzira, 1. paragrafoan adierazitako zalantzak izan dezakeen eragina eta 2. paragrafoko salbuespenak alde batera, Abadiñoko Udalaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan 2011ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa erakusten du, 2011ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena eta ekitaldian bere eragiketen emaitzena.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2011ko ekitaldian indarrean egon zen 2009ko aurrekontuaren luzapena. Aurrekontuko arautegiak ez ditu zehaztasunez arautzen luzatu beharreko diru-izendapenak eta “aurreko ekitaldian amaitu behar zuten” zerbitzu eta programetarako kredituak ez direla luzatuko baizik ez du esaten. Era honetara, oker epea luzatu zaie gastuen aurrekontuaren 4. kapituluan bi kontu-saili, 128.591 euroren zenbatekodunak, indarraldia 2009ko ekitaldian amaitu zitzaizen gastuei dagozkienak.
Bestetik, sarreren aurrekontuaren luzapenean 245.067 euroren kredituak okerbidez jaso dira, 2009ko ekitaldiko berariazko diru-sarrerei zegozkienak.
- Udal aurrekontuari 2009ko ekitalditik eratorritako kredituak txertatu, 796.008 euroren zenbatekoan, 10/2003 Foru Arauaren 32.4 artikulua ezartzen duen muga urratuz; izan ere, FA honek agintzen du txertatutako kredituak txertaketa gertatzen den ekitaldian zehar gauzatu beharko direla, eta ezingo direla txertaketa jarraituak egin, helburudun sarrerekin finantzatzen diren kapitalezko eragiketen kasua salbuetsita.
- 2011ko ekitaldian zehar Udalak aurrekontuko 3 aurrekontu aldaketa erregistratu ditu (2 geldikin txertaketa eta kreditu gehigarri bat), metatutako 1,9 milioi euroren zenbatekoan; horiek Diruzaintza Geldikin bitartez finantzatu dira eta 51.173 euroan gaudituz da 2010eko abenduaren 31n gastu orokorretarako erabilgarri zegoen zenbatekoa.
- Udalak 2011ko martxoan eta uztailean diru-laguntzak eman ditu lehia erregimenean, 41.680 euroren zenbatekoan, irisgarritasuna bermatuko duten auzo lanak egiteko, horretarako aurrekontuan diru-izendapenik izan gabe eta artekaritzak alde aurretik fiskalizatu gabe. Gerora, 2011ko azaroaren 9ko Osokoak onetsirik aurrekontuaren aldaketa egiten da, 80.000 euroren zenbatekoan, kontu-sail horri kreditua ematen diona.
- 2011ko ekitaldiari dagokion gastu-aurrekontuaren kudeaketan, Udalak ez ditu egoki kontabilizatzen gastuaren baimen eta erabilera faseak, 10/2003 FAREN 40. artikulua agintzen duen moduan. Horren ondorioz, esleipena gauzatu den unean 2. eta 6. kapituluetan aurreko ekitaldietako gastuak kontabilizatu dira, guztira 241.752 euroren zenbatekoan, artean obligazioa sortu gabe zegoela. Ez du 2011ko abenduaren 31ko Diruzaintza Geldikinean eraginik.
- TAOLen indarrez alkatearenak diren egitekoak Udal Gobernu Batzordean eskuordetu ez diren arren, bereizketarik gabe alkateak zein Batzordeak onartutako ekintza administratibo bertsuak azaleratu dira.



- 2011ko ekitaldian zehar aurreko urteetako zerga sarrerren kobratzeko saldoan baliogabetzeak eta zuzenketak egin dira (bikoiztutako zenbatekoetatik edo jada egindako kobrantzetatik eratorritakoak) eta horrek saldo horiek 836.723 euroren zenbateko garbian murriztea ekarri du, 2010eko abenduaren 31n zeuden saldoak egiaztatu eta araztu izanaren ondorioz. Zuzenketa horiek ez ditu Udalaren inongo atalek onartu harik eta 2011ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onartu den arte (ikus A.11).
- 2011ko ekitaldiaren Kontu Orokorra 2012ko abenduaren 28ko Osokoak onetsi du, 10/2003 FAREN 63.4 artikulua horretarako ematen duen epea gaindituz, uztailearen 31 baino lehenago onartzea aurreikusten duena.
- Kontularitzan zuzen erregistratzeari dagokionez, hainbat akats antzeman dira; hona hemen esanguratsuenak:
 - Udalak sarrerren 4. kapituluaren OHZ eta EJZren likidazioei dagozkien 308.415 euro erregistratu ditu, 2010eko ekitaldikoak. Eragiketa zuzen erregistratzeko sarrera hori 1. kapituluaren kontuetaratu behar litzateke.
 - Udalak gastuen aurrekontuaren 2. kapituluaren 53.723 euro erregistratu ditu; gastu horien izaera aintzat hartuta (Matienako frontoirako sarbideetan arkitektura-oztopoak kentzeko egindako lanak) gastuen 6. kapituluaren erregistratu behar ziratekeen; berebat, gastuen 4. kapituluaren 78.366 euro erregistratu dira, 2. kapituluaren jaso behar ziratekeenak.
 - Udalak 2011ko abenduaren 31ko egoera balantzearen “Diruzaintza” idazpuruan, 1,2 milioi euroren zenbatekoa du erregistratua, eperako ezarpenetan jarritako diruzaintzako soberakinei dagokiena; horiek, ordea, “Aldi baterako inbertsio finantzarioak” idazpuruan erregistratu behar lirateke. Horrez gain, ez ditu 2011ko ekitaldiko Aurrekontu Likidazioaren diruzaintzako egoeran guztira 3 kontu korrante barne hartu, 2011ko abenduaren 31n 189.831 euroren zenbatekoa zutenak eta nagusiki, diru-bilketako kontu murriztuei dagozkienak.

III.2 ZERGA SARRERAK

- Udalak ez ditu EOIZen behin-betiko likidazioak egiten, baizik eta horiek behin-betiko bihurtzen dira, nola eta interesdunak hala eskatuta ez den obraren kostu erreal eta benetako txikiagoa justifikatzen, zeinetatik zerga kuota txikiagoa eratorriko litzatekeen (10/1989 FAREN 4.1 artikulua).
- Udal zergen kudeaketan, bai likidazio egitekoak, bai diru-bilketari dagozkionak ere pertsona batek berak egiten ditu, diruzainak alegia; horrek, Udalaren Kudeaketa, Diru-bilketa eta Ikuskaritzaren Ordenantza fiskal orokorraren 4. artikulua urratzen du.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.3 LANGILERIA

- Udalak ez ditu BAOen argitaratu alkatearen ordainsariak eta dedikazio eskusiboa aitortzen zituen udalbatzaren erabakia; ez eta zinegotzientzat asistentziagatik kopuruak eta kalte-ordainak ere; honek TAOLen 75.5 artikulua urratzen du. Gainera, Udalaren 2007ko apirilaren 26ko Osokoaren erabaki bitartez, zinegotzi eta Udalbatza-buru izateagatik hileroko ordainsari finkoak ezarri ziren, egiaz bertaratzearekin lotu gabe, TAOALen 75.3 artikulua agintzen duen moduan.
- Udalaren aurrekontu-plantillak ez ditu destino, berariazko eta produktibitate osagarriari dagozkion kreditu zuzkidurak zehazten, EFPLren 21. artikulua agintzen duen moduan eta soil-soilik oinarrizko ordainsarien eta osagarrien guztizkoa barne hartzen du.
- Udalak 2011ko ekitaldian zehar 6 hilabetetan 6 langile kontratatu ditu “+Euskadi 09” enplegu programaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutakoa; ez da, baina, langileak hautatzeko baliatutako irizpideen eta balorazioen ebidentziarik batere utzi. Hautaketa kanpoko enpresa batek gauzatu du INEMi eskatutako izangaien artean, langile bati dagokionez izan ezik, INEMek igorritako zerrendan barne hartuta ez zegoena.
- Udalaren LZn estatu mailan jarduteko gaituta dauden 2 funtzionario lanpostuak hutsik daude. Idazkari lanak Udalaren funtzionario batek betetzen ditu Udalbatzak 1986an hartutako erabakiaren ondorioz; ez dira, baina, estatuan jarduteko gaitasuna duten Toki Administrazioiko Funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruz 1732/1994 EDren 30. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozedurak baliatu. Artekari egitekoak Idazkariak betetzen ditu, nahiz Abadiñoako udalerrria 2. mailako idazkaritza modura jaso dagoen eta honenbestez, beharrezkoa da ezargarri zaion araudian aurreikusitako baliabideren batekin betetzea eta horretarako eskumena duen organoak izendatzea.
- Udalak ez du gauzatutako egintzen nahikoa euskarri edo ebidentziarik uzten, udalean aldi baterako edo bitarteko langileen kontratazioetarako lan poltsak zuzen kudeatu direla egiaztatzea bideratuko dutenak. Honi dagokionez, 2011ko ekitaldian zehar egindako kontratazioak aztertzean, lan poltsa horien bitartez egiaztatu ahal izan dugu 2011ko maiatzean bitartekotasun kontratu bat gauzatu zela harik eta lanpostua bete edo amortizatu arte, lan poltsetan ezarritako hurrenkera gorde gabe (ikus A.6).

III.4 DIRU-LAGUNTZAK

- Udalak zuzenean emandako diru-laguntzak 96.085 eurorenak izan dira eta 2011ko ekitaldian erregistratu diren guztien % 32a egiten dute. Horietatik 27.046 euro udalerrian haurtzaindegi zerbitzua baliatzen duten familiei eman zaio eta 15.375 euro, San Antonio azokara bertaratzen diren abeltzainei ordaindu zaizkie. Berebat, 26.959 euro banaka harturik 3.000 euroren zenbatekoa gainditzen ez duten diru-laguntzei dagozkie, izan ere Aurrekontu Exekuziorako Udal Araudiaren 15. artikulua arabera horiek zuzenean eman daitezke, ez elkarlehia, ez publikotasuna nahitaezko ez direla. Gainerakoa, 26.705 euroren zenbatekoa, banaka hartutako kopuruek 6.000 euroak gainditzen ez dituzten diru-laguntzei dagokie. Gainera, diru-laguntza izendunek 2011n guztira emandakoen % 47 egiten dute.



Diru-laguntzen emakida arautzea aztertu behar litzateke, Udalak onartutako diru-laguntza gehienak elkarlehia erregimenean eman daitezzen, zenbatekoa alde batera, eta diru-laguntzen zuzeneko emakida DLoren 22.2 c) artikuluan aurreikusitako haietan soilik baliatuz, deialdi publikoa egiteko ezintasuna behar bezala justifikatuz.

- Ez dago erasota aztertutako diru-laguntza guztietan artekariak alde aurretik fiskalizazioa egin duenik.
- Udalak ez du BAO-n emandako diru-laguntzen emakida ebazpenaren laburpenik argitara ematen, kopuruak banaka hartuta 3.000 euroren zenbatekoa gainditzen dutenean, edukia osorik zein tokitan dagoen eskuragarri adieraziaz, DLoren 18.2 artikulua agintzen duenari jarraiki.
- Diru-laguntzen justifikazioari dagokionez, justifikatutako gastuaren zati bat jaso izanaren agiri bitartez egiten dela ikusi dugu, nahitaezko diren ordainagiri edo agiri baliokideen bidez beharrean. Gainera, elkarte bati kirol jarduera bat egiteko emandako 15.000 euroren diru-laguntzan, egiaztagiriak ez du oroitidazki ekonomikoa, ez jarduerena ere besarkatzen; berebat, ez ditu eskuratutako diru-sarrera guztiak zerrenda batean jasotzen, diru-laguntzen ordenantzak agintzen duen moduan.

III.5 KONTRATAZIOA

Udalaren kontratazio administratiboa aztertu dugu eta iritziaren atalean aipatu ditugun ez betetzeak alde batera, honako alderdi hauek bereizi behar ditugu (ikus A.16):

- Administrazio klausula partikularren pleguak

Bi kontraturen pleguek, 1,8 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoak (1 eta 4 zenbakiko espedienteak), besteak beste, modu orokorrean zehaztutako esleipen irizpideak (balioztatzeko arau zehatzik finkatu gabe, ezta puntuaziorako balio-taula jakinik ere), barne hartzen dituzte.

Aztertutako zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratuan, 2006ko ekitaldian 917.204 euroan esleitutakoa (2 zenbakiko espedienteak), lizitazio prezioak Udalak ustiaketa defizitari aurre egiteko ematen duen zenbatekoa baizik ez du barne hartzen; alabaina, kontratugileak guztira jasoko duen diru-sarrera islatu behar luke, APKLTBren 158 eta 162 artikulua aurreikusitakoaren arabera, alde aurretik APKLEOren 183 artikulua aipagai dituen tarifak zehaztu ostean.

- Esleipena

Kale garbiketa zerbitzua ematea xede duen espedientean, 1,3 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoa (1 zenbakiko espedienteak), aurkeztutako eskaintzak balioztatzen dituen txosten teknikoak pleguan irizpide bakoitzari emandako puntuazioak zehazten ditu, baina ez ditu emandako puntuazio horiek justifikatzen. Bestetik, gordailututako behin-betiko bermea SPKLren 83. artikulua agintzen duena baino txikiagoa da, urteko baten zenbatekoaren gainean kalkulatu baita eta ez esleipen zenbatekoaren gainean.



Aztertu ditugun bi obra kontratutan, 691.545 euroan esleitutakoak (3 eta 4 zenbakiko espedienteak) ez da kontratua formalizatzea BAO n argitaratu, SPKLren 138. artikulua agintzen duen moduan.

- **Egikaritza eta harrera**

Traña-Matiena Lanbide Heziketako Ikastetxearen (LHI) aldagelak eta kirol anitzeko pista eraikitzea xede duen obra kontratutan, 519.641 euroan esleitu zena (4 zenbakiko espedienteak), txosten hau idatzi dugun datan ez dago erasota obraren likidazioa egin denik, SPKLren 218. artikulua agintzen duen moduan.

Udal igerilekuetako zerbitzuak kudeatzeko kontratutan, 917.204 euroan esleitu zena (2 zenbakiko espedienteak), luzapenak isilbidez gauzatu dira, APKLTBren 67.1 artikulua agintzen duenaren aurka. Bestetik, auditoria enpresa baten bitartez gauzatutako kontrola ekonomia-finantza kontrola egitera mugatzen da, ustiaketa kanonagatik balizko diru-sarrera zehaztearen. Alabaina, kontrol hori ez da behar bezainbestekoa jarduerak hitzartutako baldintzak betez gauzatu diren zehazteko; horretarako, Udalak APKLTBren 155. artikulua eta TKZEren 127. artikulua aitortzen dizkioten eskudantziak baliatu behar zituzkeen.

- **Erosketa txikien analisia**

Erosketa txiki modura izapidetutako erosketak aztertzerakoan zera ikusi dugu:

- Aholkularitza juridikoaren kontzeptuko gastuak, 33.057 eurorenak; telefonia finko eta mugikorrekoko gastuak, 55.604 eurorenak; ikuskizunetan laguntza teknikoa emategatiko gastuak, 47.057 eurorenak; hauek guztiak, kopurua aintzat hartuta, publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeen.
- Aholkularitza zerbitzua emategatiko gastua, 2008an zuzenean kontratu txiki modura 17.880 euroan esleitu zen, BEZik gabe, urtebeterako eta beste 4tarako luzagarria; ordea, SPKLren 23.3 artikuluari jarraiki, kontratu mota honek ez dezake urtebetetik gorako iraupenik izan eta ez daiteke luza. 2011ko urtean kontzeptu horren izenean egindako gastua 19.974 eurorena izan da.
- Derrigorrezko diru-bilketa zerbitzua emategatiko eta aseguru etxe batekin arrisku anitzetarako industri poliza kontratatzeagatik gastuak, hurrenez hurren 1986 eta 1985ean esleitutakoak eta gaur egun indarrean daudenak. 2011ko urtean kontzeptu horien izenean egindako gastua, hurrenez hurren, 18.156 eta 46.732 eurorena izan da. Espediente horien antzintasuna ikusita, kontratazio espediente berriak lizitatu behar ziratekeen.

III.6 BERANKORTASUNA ETA BESTELAKO ALDERDIAK

- Udalak egindako ordainketen analisia -aztertu ditugun kontratazio espedienteetatik eratorri direnak- guztira 123.962 euroren ordainketak azaleratu dira (aztertutako guztiaren gainean % 6a), zeinetan uztailaren 5eko 15/2010 Legeak ezarritako epea gainditzen dela ikusi dugun; lege honek abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten du, merkataritzako eragiketetan berandutzaren aurkako neurriak finkatzen dituena. Halaber,



2011ko ekitaldian aurreikusitako ordainketa epeak betetzeari dagokionez Osokoari aurkeztu behar zaizkion hiruhileko txostenak ez dira egin, aipatutako legearen 4.3 artikulua agintzen duen moduan.

- Abadiñoako Udalaren 2007ko martxoaren 29ko Osokoak, Erralde Durangoko Hiltegia, SL Sozietatearen akziodun bakar den aldetik, comfort letter bat (konpromiso gutuna) jaulki zuen Sozietatearekin hipoteka maileguak izenpetu zituzten finantza erakundeen alde; gutun honen helburua zen Udalak Sozietatearen kapital sozialean duen partaidetza-ehunekoaren mugara arte poliza horietatik eratorritako obligazioak bermatzea, horietan jasotako obligazio zuzen nahiz zeharkakoak erabat iraungi arte. 2011ko abenduaren 31n Erralde Durangoko Hiltegia, SLk itzultzeko dituen maileguen zenbatekoa 2 milioi eurorena da. Komenigarria litzateke Abadiñoako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten finantza egoeren oroitidazkiak eragiketa mota honi buruzko informazioa barne hartzea, are gehiago Erralde Durangoko Hiltegia, SLren Akziodunen Batzorde Orokorrak, 2012ko urriaren 17koak, kapital soziala 426.000 euroan gehitzea eta Sozietatea desegitea (Kapitalezko Sozietateen Legearen 363.1 artikuluan jasotako kausa dela medio) erabaki ostean. Kapital zabalkuntza honen ondoren, Udalak Sozietatean duen partaidetza % 22koa da.



IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

FINANTZA ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2009(*)	2010(*)	2011	2009	2010	2011
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	4.469	3.809	4.882	616	521	668
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	4.678	3.546	4.862	644	485	665
Ondare sarrerak (5. kap.).....	115	68	71	16	9	10
A. Diru-sarrera arruntak	9.262	7.423	9.815	1.276	1.015	1.343
Langile gastuak (1.kap.).....	3.047	3.015	3.101	420	412	424
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	3.753	3.492	3.564	517	478	487
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	1.509	1.329	1.304	208	182	178
B. Funtzionamendu gastuak	8.309	7.836	7.969	1.145	1.072	1.089
Aurrezki gordina (A-B)	953	(413)	1.846	131	(57)	254
- Finantza gastuak (3. kap.).....	117	90	104	16	12	14
Emaitza arrunta	836	(503)	1.742	115	(69)	240
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	360	363	712	50	50	97
Aurrezki garbia	476	(866)	1.030	65	(119)	143
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	2.166	1.011	41	298	138	6
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	(4.236)	(1.971)	(1.377)	(583)	(270)	(188)
- Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	(43)	(14)	(37)	(6)	(2)	(5)
Kapitaleko eragiketen emaitza.....	(2.113)	(974)	(1.373)	(291)	(134)	(187)
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.)	(1.277)	(1.477)	369	(176)	(203)	53
Diruzaintzako geldikina.....	3.147	1.861	1.502	433	255	205
Zorpetzea 12.31n	3.322	3.932	3.489	458	538	477

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Sarrera arruntak: 2011n % 32 egin zuten gora eta % 20 egin zuten behera 2010ean, aurreko ekitaldietako bakoitzarekiko. Aldakuntza nagusiak honako hauek izan dira:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** Sarrera hauek % 15 egin dute behera 2010ean, batik bat eraikuntzak 2009ko ekitaldiarekiko izandako jarduera txikiagoaren ondorioz; horrek EIOZ sarrera txikiagoak eragin zituen eta % 28 handiagotu dira 2011rekiko. 2011ko ekitaldian bariazio handienak honako hauek izan dira:
 - Zerga zuzenek eragindako diru-sarrerak % 20 egin zuten gora 2011n, batik bat, 2011n BFAk kontura egindako entregen igoeraren ondorioz, bai OHZrenak, bai EJZrenak, 2010eko ekitaldiko bi zergen likidazioak positiboak izan zirelako; horiek, bada, hurrengo ekitaldian aurkeztutako konturako sarreraren igoera eragin zuten (189.726 euro OHZrenak eta 106.886 euro, EJZrenak). Gainera, OHZren tipo zergagarriek igoera txiki bat izan dute.
 - Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren Zergak eragindako diru-sarrerak ekitaldi bakoitzean onartzen diren eraikuntza proiektu eta lizentziei meneratzen zaizkie eta honenbestez, merkatuko fluktuazioen baitako dira. 2011ko ekitaldian zehar 381.452 euroan gehitu da eta diru-sarrera adierazgarrienak 90 etxebizitzako hiru promozio eta industri pabiloi bat eraikitzeak eratorritakoak izan dira, guztira 330.313 euro egin dutenak.
 - Tasa eta bestelako sarrerak eragindako sarrerak 279.172 euroan gehitu dira 2011n eta horrek % 17 egiten du. “Ustekabekoak” kontzeptuan izandako igoera azpimarratu behar da, 177.262 euroan gehitu baita, nagusiki Eusko Jaurlaritzak udalerrian langileak kontratatzeke emandako diru-laguntza batek eragindako sarreraren ondorioz (37.125 euro), eskoletarako modulu batzuen alokairuaren esleipendunak hainbat deskontu ordaindu izanaren ondorioz (33.044 euro) eta aurrekontuz kanpoko kontuetan erregistratuak zeuden aurreko urteetako diru-sarrerak aurrekontuan jaso izanaren ondorioz 84.053 euro).
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Transferentzia eta diru-laguntza arruntek eragindako sarrerak % 37 gehitu ziren 2011n eta % 24 jaitsi ziren, berriz, 2010ean.

Osagirik garrantzitsuena Udalkutxa da. 2010ean zehar konturako entreegi zegozkien 3,3 milioi euro erregistratu ziren (2009ko ekitaldikoak baino % 16 txikiagoak), aurreko urteetako likidazioekin gutxituak. 2011ko ekitaldian kapitulu honetan ekitaldiko konturako entregak soilik kontabilizatu dira (4,4 milioi euro), izan ere, 2009ko ekitaldiaren likidazio negatiboa gastuen aurrekontuaren 9. kapituluaren erregistratu da eta Udalak ez du 2011ko ekitaldiko Udalkutxaren likidazio negatiboa erregistratu, 271.228 euro egin dituenak.

Funtzionamendu gastuak: 2011ko ekitaldian % 2 egin dute gora eta % 6 murriztu dira 2010ean, aurreko ekitaldietako bakoitzarekiko. 2011ko ekitaldian aldakuntza nagusiak honako hauek izan dira:

- **Langile gastuak:** Nahiz % 3 egin duten gora 2011ko ekitaldian, ordainsari kontzeptuko gastuak beheraldi txikia izan du (% 0,5) 2010eko ekitaldiarekiko. Igoeraren arrazoia



nagusiki “Gastu sozialen” kontuetan hainbat eragiketen kontularitzako erregistroak eragin du, hala nola, 2010eko abenduko Gizarte Segurantzaren kuota, eskuordetutako ordainketak edo Udaleko langileentzat izenpetutako aseguru gastuak (2010eko ekitaldian 2. kapituluan erregistratu ziren).

- **Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak:** % 2 egin dute gora 2011n eta % 7 behera 2010ean. Orokorrean, 2011n gastuari eutsi egin zaio, KPIri dagozkion igoaldi arinak eginez.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Gastu hauek % 2 murriztu ziren 2011n eta % 12, 2010ean.

Aurrezki gordina: Aztergai izan dugun aldian magnitude hau % 94 hazi da, 2010ean aurrezki gordin negatiboa izatetik 2011n positiboa izatera aldatuz, izan ere sarrera arruntak handiago egin dira (% 32) eta gastu arruntak pixka bat murriztu (% 2). 2011n eskuratutako aurrezki gordinak ekitaldi horretan kitatutako sarrera arrunten % 19 egiten du.

Aurrezki garbia eta zorpetzea: Aurrezki garbiak finantza zamaren ordainketari aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den aurrezki gordinaren atala islatzen du (interesak eta zorraren amortizazioa) eta Udalak baliabide arrunten bidez inbertsioak finantzatzeko duen gaitasuna erakusten du. 2011ko ekitaldian zehar, aurrezki garbia positiboa izan da eta Udalkutxaren 2009ko likidazio negatiboa zati batean amortizatzeko bide eman du (268.457 euro) eta mailegu baten aparteko amortizazioa egin ahal izatekoa, 79.728 eurorena.

Kapital eragiketen emaitza: Aztertutako aldian, kapital diru-laguntzengatik diru-sarrerak egindako inbertsioak baino askoz txikiagoak izan dira eta horrek magnitude honen saldo negatiboa izatea eragin du. 2011ko urtean nahiz egiazko inbertsioek murrizketa handia izan zuten aurreko urteekiko, kapitalezko diru-laguntzek eragindako diru-sarrerak desagertu egin ziren ia (41.437 euro) eta horrek magnitude honen saldo negatiboa izatea eragin du.

Eragiketa ez finantzarioen emaitza: 2011ko ekitaldiak, aurreko ekitaldiek ez bezala, saldo positiboa du, sarrera arruntek izan duten igoeraren ondorioz eta gastuari eutsi izanaren ondorioz, batik bat, egiazko inbertsioen kapituluan.

Diruzaintza geldikina: Magnitude honek % 52 egin du behera aztertutako aldian, azken ekitaldietan gauzatu diren inbertsioak finantzatzeko iturri modura erabili baita. Beheraldiak beheraldi, 2011ko abenduaren 31n 1,5 milioi euroren saldo positiboa erakutsi du hala ere, 1,8 milioi euroak joko lituzkeelarik baldin eta Epaitegi honek mahairatu dituen doiketak aintzat hartuz gero.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Ondorioa: Udal Administrazioek egiten dituzten inbertsioen balizko finantzaketa iturriak honako hauek dira: ekitaldi bakoitzean sortzeko gai diren aurrezki garbia, diruzaintza geldikinak eta diru-laguntza bidez edo zorpetze berri baten bidez eskura dezaten kanpoko finantzaketa.

2011ko ekitaldian zehar Abadiñoako Udalak aurrezki garbi positiboa izan du eta Diruzaintza Geldikinarekin batera aurreko ekitaldietakoa baino inbertsio programa txikiagoa finantzatzeko bide eman dio. Gogoan izan behar da 2011ko abenduaren 31ko zorpetze maila esanguratsua dela, batik bat, 2009 eta 2011ko ekitaldietako itzultzeko dauden Udalkutxako likidazio negatiboak barne hartzen baditugu, 511.256 euro eta 271.228 euro, hurrenez hurren, Udalak Kontu Orokorraren zorpetze-taulan barne hartu ez dituenak eta zor bizia kitatutako sarrera arrunten % 43 izatea eragin dutenak.

2012ko ekitaldirako aurrekontuak eragiketa arrunten kontzeptuko emaitza 2011ko ekitaldiaren likidazioan eskuratutakoa baino % 45 txikiagoa izatea aurreikusi du; horren arrazoa da aurreikusitako sarrera arruntek nabarmen behera egin izana (% 7) eta gastu arruntek igoera txikia (% 1) izatea. Bestalde, aurreikusitako egiazko inbertsioak 2011ko ekitaldian kitatutakoak baino % 47 handiagoak diren arren, horien aurrekontua egin da emaitza arruntaren bidez eta eskuratu asmo diren kapitalezko diru-laguntza bidez finantzatzeko moduan. Gainera, beste zorpetze eragiketa bat hitzartzea aurreikusi da, 788.379 eurorena, aurreko urteetan izenpetutako maileguetatik eratorritako 2012ko kuotak amortizatzeko baliatuko dena. Ordea, mailegu hori ez da 2012ko ekitaldian izenpetu.

2012ko ekitaldian zehar inbertsio errealek eragindako gastuak finantzatzeko 1,1 milioi euroren diruzaintza geldikinak txertatzea onartu da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

2011-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE.	KOBRA.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	
1.- Zerga zuzenak	A.3	2.109	43	2.152	2.529	2.350	179	118
2.- Zeharkako zergak	A.3	510	-	510	467	467	-	92
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	1.869	-	1.869	1.886	1.778	108	101
4.- Transferentzia arruntak	A.4	4.913	-	4.913	4.862	4.862	-	99
5.- Ondare sarrerak		178	-	178	71	71	-	40
6.- Inbertsio errealen besterentzea	A.5	-	-	-	-	-	-	-
7.- Kapitalezko transferentziak	A.4	-	342	342	41	29	12	12
8.- Aktibo finantzarioak (*)		60	1.912	1.972	37	37	-	62
SARRERAK GUZTIRA		9.639	2.297	11.936	9.893	9.594	299	99

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikin bidez finantzatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	
1.- Langileria-gastuak	A.6	3.040	84	3.124	3.101	3.056	45	99
2.- Ondasun arruntan erosk. eta zerb...	A.7	3.921	(138)	3.783	3.564	3.357	207	94
3.- Finantza gastuak	A.10	187	(69)	118	104	104	-	88
4.- Transferentzia arruntak	A.8	1.680	(233)	1.447	1.304	1.150	154	90
6.- Inbertsio errealak		-	2.458	2.458	1.377	1.376	1	56
7.- Kapitalezko transferentziak	A.8	-	80	80	37	22	15	46
8.- Finantza aktiboak		85	-	85	63	63	-	74
9.- Finantza pasiboak	A.10	597	115	712	712	712	-	100
GASTUAK GUZTIRA		9.510	2.297	11.807	10.262	9.840	422	87
SARRERAK - GASTUAK					(369)			

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	KOBRA./		AZKEN	
		ZORRA	BALIOG.	ZUZENK.		ORDAIN. ZORRA
Zordunak	A.11	2.309	(5)	(836)	(403)	1.065
Hartzekodunak		1.452	-	-	(790)	662
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			(5)	(836)	-	-



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Kitatutako eskubideak.....	9.893
Aitortutako obligazioak.....	10.262
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETA AURREKONTUZKOEN EMAITZA	(369)
AURREKO EKITALDIETAKO KITATUTAKO AURREK. ERAGIKETEN EMAITZA	(841)
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	(1.210)
Finantzaketa desbideratzeak	203
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	80
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	(927)

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza geldikina 2011/01/01ean.....	1.861
Aurrekontuaren emaitza	(1.210)
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldatetak	851
Sarrerren itzulketeng. eta beste hartzekod. bariaz.	-
DIRUZAINZA GELDIKINA 2011.12.31-N	1.502
Diruzaintza (A.12)	1.857
Aurrekontuko zordunak (A.11)	1.364
Aurrekontuz kanpoko zordunak (A.14)	644
Aurrekontuko hartzekodunak (A.12).....	(1.084)
Sarrerren itzulketeng. hartzekod. (A.14).....	-
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak (A.14).....	(379)
Aplikatzeke dauden sarrerak (A.14)	-
Kaudimen-gabeziatarako hornidurak (A.11)	(900)
DIRUZAINZA GELDIKINA 2011.12.31-N	1.502
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina.....	(301)
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA	1.201
2011.12.31-N ZORPETZEA (A.10)	3.468



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2011 ETA 2010-EKO ABENDUAREN 31-N Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA	2011	2010	PASIBOA	ERANSKINA	2011	2010
IBILGETUA	A.9	47.215	45.812	FUNTS PROPIOAK		46.214	46.209
Erabilera orokorrekoa.....		36.069	35.565	Ondarea		19.845	19.845
Ibilgetu ezmateriala.....		1.013	1.013	Aurreko ekitaldietako emaitza.....		26.364	25.687
Ibilgetu materiala.....		10.105	9.232	Galera-irabaziak.....		5	677
Ibilgetu finantzarioa.....		28	2				
				HARTZEKODUNAK EPE LUZERA	A.10	2.697	3.409
ZORDUNAK		1.077	2.866	Beste zor batzuk		2.753	3.465
Indarreko ekitaldiaren aurrek.	A.11	299	-	Sekt. publ. entitateekiko zorrak		(56)	(56)
Ekitaldi itxien aurrek.....	A.11	1.065	2.310				
Entitate publiko zordunak.....	A.14	414	336	HARTZEKOD. EPE LABURRERA.....		1.265	1.714
Askotariko zordunak.....	A.14	199	220	Indarreko ekitaldiaren aurrek.	A.12	422	-
Kaudimengabez. zuzkid.....	A.11	(900)	-	Ekitaldi itxien aurrek.....	A.12	662	1.452
				BEZarengatiko hartzekodunak.....	A.14	10	2
FINANTZA-KONTUAK		1.884	2.654	Erakunde Publiko hartzekodunak.....	A.14	310	306
Aldi bateko finan. inberts.....	A.14	27	27	Sekt. publ. entitateekiko zorrak.....	A.10	(194)	(194)
Diruzaintza	A.13	1.857	2.627	Bermeak eta gordailuak	A.14	34	43
				Aplikatu gabeko fakt. hartzekod.....	A.14	21	21
				Aplikatzeko dauden sarrerak.....		-	84
AKTIBOA GUZTIRA		50.176	51.332	PASIBOA GUZTIRA		50.176	51.332

2011 ETA 2010-EKO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSKINA	2011	2010	SARRERAK	ERANSKINA	2011	2010
Langileria-gastuak.....		3.113	3.027	Negozio zifr. zenbateko garbia.....		1.553	1.423
				Zerga zuzenak	A.3	2.529	2.116
Kaudimengab. zuzkid. aldak.	A.11	900	-	Zeharkako zergak	A.3	467	86
Kanpoko zerbitzuak.....		3.551	3.479	Jasotako transf. eta dirul.....	A.4	4.903	4.557
Emand. transf. eta dirulag.....	A.8	1.341	1.343	Kudeaketa arrunteko bestel. sarr.....		375	197
USTIAPENAREN MOZKINA		922	530				
				EMAITZA FINANTZARIO NEG.		76	36
AURREKO EKITALDIETAKO MOZKINAK		-	183	AURREKO EKITALDIETAKO GALERAK		841	-
EKITALDIKO MOZKINA		5	677				



TXOSTENAREN KONKLUSIOEN AURKAKO ALEGAZIOAK

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, Udal honetako erregistroan 2013ko abuztuaren 19an 3645 zenbakiz sartutako idazkiaren bidez gure jakinean jarri zituen Udal honi egindako 2011. urtaldiko Kontuen Fiskalizazio lanen emaitzak eta alegazioetarako epe bat eskaini zigun emaitzok behin-betiko onartu aurretik. Horri buruz hona hemen Udal honek esateko daukana:

Gogoeta orokorrak.

1. Azterketan aintzat hartu beharko lirateke Udalak dituen baliabide materialak eta, batez ere, humanoak, eta ez bakarrik bere sailkapena 2. mailako udalen artean.
2. Txostenak dio anomalia batzuk ohartu direla fiskalizatutako urtaldian, baina ez dira aipatzen zuzendu diren egoerak.
3. Komenigarria litzateke argi bereiztea auditorearen iritzi subjektiboak eta benetako lege-urraketen gaineko gomendioak.

II. IRITZIA

II.1.1 LEGERIA BETETZEAZ

LANARIGOA

Lanarigoaren atalean, Abadiñoko Udalak, jakinik gauza batzuk hobegarriak zirela eta beste batzuetan berriz anomaliak egon zitezkeela, 2011. urtetik bertatik, eta Kontu Auzitegiak bere auditoria egiten hasi baino lehen, hartuak zituen hainbat erabaki eta neurri udalaren Giza Baliabideak hobeto kudeatzeko. Une honetan lanpostu bakoitzak badu bere monografia zehatza eta horrek nabarmen errazten du Udal langileen kudeaketa. Badago orobat Lanpostuen Zerrenda bat udal langileak zerbitzuetako beharrezan araberako antolatzea ahalbidetzen duena eta postu bakoitza betetzeko eskakizunak zehazten dituena. Eta badago baita ere Aurrekontuko Plantilla bat eta nomina egitura bat indarreango legeriari egokitua.

Auditoria egiten eri den bitartean, Udal honetan egindako ekintza guztien berri zehatza eman zaio Kontu Auzitegiari, Lanpostu Zerrendari eta Aurrekontu Plantillari buruzkoa besteak beste.

Aldi baterako kontratazioei dagokienez, ordezkapenak egiteko eta oso denbora gutxirako kontratazioak izan dira. Kasu guztietan bete dira meritu, gaitasun eta konkurrentziako irizpideak eta denetan errespetatu dira Lan-Poltzak, saiatu garelarik elkarrekin bateratzen printzipio horiek eta aldi baterako langile bat hartzeko premiak ezarri izan digun presakatasuna. Nolanahi ere, berriz diogu, kontratu horiek beti izan dira oso laburrak eta lan-lontratupekoak ¹.

¹ Txostenaren iritziaren atalean jasotako bi kontratuen iraupena batean urtebetekoa eta bestean 9 hilabetekoa zen, kontratazio hori aurreko ekitaldietan jada egina zela. Hautatutako bi pertsonetarik inor ere ez da Udalaren lan poltsetakoa.



KONTRATAZIOA.

4. Lizitazio printzipioak hautsitzat joko dira kontratuak aldatzeko ezarrita dauden betekizunak urratzen direnean.

Kirol Anitzetakoa Pistaren proiektuaren aldaketak egitean zehatz-mehatz jarraitu zen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 217. artikulua, eta espedientean jasota dago lege-betekizun guzti-guztiak bete izana (pleguan aurreikusitako aldaketak, interes publikoko arrazoiak ustekabeei erantzuteko). Aldaketaren ondorioz hasierako zenbatekoa %43 emendatzeagatik ez da urratu berez inongo araurik, aldaketarako ahalmenak ez baitu ezarrita inolako muga zenbatekoen aldetik, salbu aurrekontuak berak ezartzen duena, eta espedientean jasota dago aldaketa gauzatzeko zegoen aurrekontuko dotazioa.

Maila, Proiektuaren egileak berak ezarri zuen.

III. GOGOETAK BARNE KONTROLEKO SISTEMA ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZ.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

2009ko Aurrekontua 2011. urtera luzatzeko jarraitutako prozedura legearen arabera izan da gure ustez. Epaitegiak berak dio aurrekontu arloko araudiak ez duela zehazki arautzen luzatu beharreko kontsignazioak eta, hortaz, gure ustez ez dago horren biribil esaterik partida batzuk modu desegokian luzatu direla.

2011ko urtaldiko Udal Aurrekontura erantsi ziren kapital eragiketak 10/2003 Foru Arauaren 32.1 b) eta d) artikuluari jarraituz erantsi ziren.

“D” fasearen aurreko aurrekontu exekuzioko faseak ez kontabilizatzeko arrazoia kontsiderazio orokorren 1. atalean aurkitzen da.

Udaleko Gobernu Batzordeak ez du hartzen inolako akordiorik, aholkularitza eta kontsulta organo bezala aritzen da. Osoko Batzarrari ez dagozkion gai guztiak Alkatetzaren ebazpenez onartzen dira.

Saldoak ez dira formalki ezeztatzen ez zuzentzen likidazioa egin arte eta urtaldiko likidazioa onartzen den ekitaldi berean onartzen dira.

Azkenik, 2. Kapituluako gastuen kontabilitatea (53.723.-), Epaitegiaren ustez 6. Kapitulan Kontabilizatu beharko litzateke. Gure ustez hori iritzi subjektibo bat da.

III.2 ZERGA SARRERAK

EIOZ-Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergen likidazioei dagokienez, aurreko idazkietan esan duguna berresten dugu, idazki horietan gaia aski argi utzi genuelakoan.

III.3 LANARIGOA

Lan-poltsen espedientean dago jasota lan-poltsetan izena emanda daudenen artean egiten diren deialdiak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.4 DIRULAGUNTZAK

Dirulaguntzen kudeaketari dagokionez, eta zuzeneko emakidak gutxiago edo gehiago erabili izanari dagokionez, araudiak ez du bide hori debekatzen eta ez du portzentaje jakinetara mugatzen aukera hori. Eraginkortasun arrazoiengatik logikoagoa dirudi prozedura hori erabiltzea zenbateko gutxiko kasuetan.

Fiskalizazioari eta argitalpenari dagokionez, kontsiderazio orokorren 1. atalean esandakoa berresten dugu; nolana ere, ia espediente guztiak Udaleko Kontu-Hartzaitza Sailera joaten dira aztertuak eta berrikusiak izateko eta kontabilizatu egiten dira; besterik da espedientean berrikuspen lan horren ebidentzia materialik ez egotea.

Azkenik, dirulaguntzak “jasoa” agirien bitartez zurtzen dira dirulaguntza pertsona fisiko bati ematen zaionean, kasu horietan ezinezkoa baita fakturarik edo gisako merkatal dokumenturik erabiltzea.²

III-5 KONTRATAZIOA

-Administrazio-baldintza berezien Pleguak:

Puntuak zehazteko formula aplikatzen ez zitzairen balorazio irizpideak hauek ziren: memoria teknikoak, zerbitzuaren antolaketa eta hobekuntzak. Irizpide horiek nahikoak eta egokiak izan ziren, prestatutako balorazio txostenetan jasota dagoen bezala, eta eskaintzen eta ezaugarri teknikoen deskripzio zehatza egiten zen.

